

P. I. BARRUTIAREN III. MENDEURRENA

Aramaio, 1982-XII-18

Endrike Knörr

Jaun-andereok!

Egun, hemen, liburu bat aurkeztu nahi genuen, baina ezina gertatu zaigu garaiz ateratzea. Olentzarokari ez, Erregeetan etorriko dela espero dugu.

Barrutiaren mendeurreanaren prestalanetan hasi ginenean, Euskaltzaindiaren aginduz, liburu bat argitaratzea pentsatu genuen horretarako sortua zen Batzordean. *Gabonetako Ikuskizunaz* gainera, liburuak itzulpena ekarri beharko luke, orobat zenbait artikulua. Testuaz eta itzulpenaz Joseba Lakarra arduratu da, berriki, *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* deritzan aldizkarian aritua (XV (1981), 121-156.orr). Egile berak obraren alderdi batzu aztertu ditu. Beste aldetik, Jose Mari Belez de Mendizabal aramaioarrak Barrutiaren biografiaz lan interesgarri bat idatzi du. Eranskin gisa, Azkuek Gerrari egin zion esker onezko gutuna. Ondoren, Jon Kortazarren artikulua dator, lehen ondu zuena (ikus *Fontes Linguae Vasconum*, XIII (1981), 221-252.orr) hedatuz eta erdal itzulpena gehituz. Azkenik, Juan Maria Lekuonaren lan bat aurkituko duzue, obraren neurkeraz.

Eskerrak eman beharrean naiz, liburuaren prestatzaile jardun dudanez gero. Eskerrak, bai, aipatu ditudan lagunei, Halaber Arabako Foru Diputazioari, berorren babespean plazaratzen bait da liburu. Eta eskerrak ere *Anuario* eta *Fontes* aldizkarien zuzendariei, lehen argitaratu lanak liburuon sartzeko baimenagatik.

Ez nuke bukatu nahi, Batzordearen inguruan ibili den zurrumurru bat aipatu gabe. Baliteke laster edota denbora luzearen buruan jaun batek *Gabonetako Ikuskizunaren* eskuizkribu jatorrizkoa erakustea. Poztuko gara, noski, aldez, horrela bada. Baina jakin bedi ere atea zabalik izan dituela jaun horrek, barrutik dei egin zaiola, inolako erantzunik jaso gabe.

Mila esker.